

GREKOA II / GRIEGO II

GREKOA II

2025eko USaPeko GREKOko ariketak irizpide hauei jarraituz kalifikatuko dira:

A Multzoa: Grekozko testuen hizkuntza-ezaugarriak identifikatzea eta azaltzea. Itzulpena eta lotutako galderak

1. Grekozko testua gaztelaniara edo euskarara (hiztegiak lagunduta) itzultzeari 0 puntutik 5era bitarteko kalifikazioa emango zaio. Honakoak balioetsiko dira: testuaren esanahia ulertzea, testuaren gramatika-egiturak ulertzea, gaztelaniaz edo euskaraz zuzen adieraztea, eta, ahal den neurrian, itzulpenean egitura horiei eustea.
2. Proposatutako esaldiaren analisi sintaktikoari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio, eta, analisisan eta itzulpenean akats bera errepikatuz gero, behin bakarrik hartuko da kontuan kalifikazioa jaisteko. Analisia sintaktikoa emandako itzulpenarekin bat datorren baloratuko da.
3. Aditz-morfologiaren galderari 0 puntutik 0,5 puntura bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik (pertsona, numeroa, denbora, modua eta boza adieraziz; partizipioa izanez gero, kasua, generoa eta numeroa ere adieraziz) eta 0,25eraino proposatutako formak jotzekagatik.
4. Izen-morfologiari dagokion galderari 0 puntutik 0,5 puntura bitarteko balorazioa emango zaio; 0,25eraino morfologia-analisi zuzena egiteagatik (aztertutako testuaren testuinguru zehatzean dituen generoa, numeroa, kasua eta funtzioa adieraziz) eta 0,25eraino eskatzen den deklinabidea idazteagatik.

B Multzoa: Grekoaren ondare lexiko eta kulturala gure hizkuntzetan identifikatzea eta garatzea

5. Lexikoari buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; hain zuzen, 0,5eraino emango da proposatutako hitzaren etimologia eta esanahia adierazteagatik, eta 0,5eraino hitz horrekin erlazioa duten gaztelaniazko edo euskarazko hitzak (lau, gutxienez) zehazteagatik.
6. Greziari eta haren ondareari (greziar literatura) buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; hain zuzen, 0,5eraino literatura-generoaren oinarri nagusiak azaltzeagatik, eta 0,5eraino proposatzen den egile edo lanari buruz idazteagatik. Hizkuntza idatziaren erabilera okerra (koherentzia, kohesioa, sortutako testuen gramatika-,



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

2025eko UNIBERTSITATEAN SARTZEKO PROBA
PRUEBA DE ACCESO A LA UNIVERSIDAD 2025

ZUZENTZEKO ETA KALIFIKATZEKO IRIZPIDEAK
CRITERIOS DE CORRECCIÓN Y CALIFICACIÓN

lexiko- eta gramatika-zuzentasuna eta aurkezpena barne) galderaren balioari gehienez % 25 kenduta zigortuko da (hau da, 0,25 puntu).

7. Irakurtzeko proposatzen diren obrei buruzko galderari 0 puntutik 1era bitarteko kalifikazioa emango zaio; puntuazioak balioetsiko du pasartea bere testuinguruan identifikatzea, obrak benetan irakurri izana eta obren ulermena. Hizkuntza idatziaren erabilera okerra (koherentzia, kohesioa, sortutako testuen gramatika-, lexiko- eta ortografia-zuzentasuna eta aurkezpena barne) galderaren balioari gehienez % 25 kenduta zigortuko da (hau da, 0,25 puntu).